

HIZKUNTZ EXODOA STOP! EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA AUZO ETA HERRI GUZTIETAN!

UPN-PSN gobernuak Vasconcearen legeaz egiten duen inposaketa eta interpretazioa dela eta, Sortzen Ikasbatuazetik datu bilketa egiten hasi ginen honek eragiten zituen ondorioak ikustarazteko. Lehenengo aipua **Hizkuntz Exodoaren** existentzia da, milaka herritarrek pairatzen dutena egunero euren herritik ateratzean euskaraz bizi ahal izateko.

Hemen ditugu datu batzuk, oraindik amaitu gabe daudenak, baina ezin izan dugu gehiago itxaron ezagutarazteko, eskandalagarriak baitira arazoa bere osotasunean islatzen ez badute ere. Ez dira agertzen Nafarroako hainbat ikasletoleto datuak, ezta Lapurdi zein Zuberoakoak, beraz Nafarroa Garaira mugatuko dugu analisia, beti ere soilik eta bakarrik Derrigorrezko Eskolaztea aintzakotzat hartuz. Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Goi Mailako ikasketak kontutan hartzea kontaezina suerta daiteke, baina ezin dugu ahaztu horretan ere **Hizkuntz Exodoa** existitzen dela.

Datuak lortzeko eskoletako matrikulak erabili ditugu eta bidaien kalkulua egin dugu, kilometroena zein euroena, ondorengo emaitzak lortuz:

1. **1.400 umetik gora** daude egunero joan etorriak egiten dituztenak (Sortzen Ikasbatuaz-ek 1.392 zenbatu ditu), batz bestea egunero 20 kilometro egiten dituztenak.
2. Honek esan nahi du ume guztien artean egiten duten kilometroen batuketa urtean **5 milioi kilometro** baino gehiagokoa dela (zehazki, 5.001.462,4 kontabilizatuak). Hau da, **ilargira 13 bidai**.
3. Kilometro hauen guztien kostea **751.812 €**koa da, honek suposatzen duen guztiarekin egun. Batz bestea 540 eurotik gora ume bakoitzeko, soilik gasolinan.

Hau esanguratsua iruditzen zaigu oso, argi adierazten baitu Nafar Gobernuak beste astro batean nahiko gintuela, ilargian nahi gaituela alegia, baina hemen gaude eta errealitate bat gara. Errealitate ez eroso eta latza aldi berean. Errealitate ez eroso urtetik urtera datu hauek handiagoak direlako, euskaraz ikasi eta bizi nahi dutenen kopurua gora egiten baitu.

Irakurketa bat baino gehiago ere egin daiteke atxikitutako koadroko datuak aztertuz:

- Legearen arabera zonalde mistoan (taula begiratu) dauden herrietan ere **Hizkuntz Exodoa** ematen da, UPN-PSNren Gobernuak hauetan ere Vasconcearen legearen interpretazio murrizta egiten baitu. Adibidez, Abarzuza edo Lezaun, zeintzuetan eskola dagoen eta ez dute D eredurik jartzen.
- Zirauki (22 ume), Jaitz/Salinas de Oro (17 ume) edo Mañeru (19) bezalako herrietan eskolarik ez egotea ez da ratio kontua. Nafarroako Gobernu oso azkar ixten ditu eskolak herrian umerik ez dagoenean. Ordea, ez dugu ezagutzen herririk zeinetan ume kopuruak gora egiten duenean eskola berrirekitzen den. Zein da honen arrazoia? Guk oso argi dugu, euskarazko irakaskuntza ez bermatzeko hautua.
- Ameskoako herrietan 3 eta 4 urtetako populazioaren %100ak D eredu publikoan ikasi nahi du baina ez zaio ahalbidetzen zonalde "ez" euskaldunean kokatuta omen dagoelako. Noain ordea lege zonalde berean dago eta D eredu publiko du.
- D ereduaren eskaera handia dagoen herrietan, Gobernuak erabili izan duen estrategia, herria zein eskolaren nahien gaintetik TIL eredia inposatzea izan da, zeinean euskararen presentzia hutsaren hurrengoa den (Añorbe, Artaxoa...).

Errealitate latza familia guzti hauek bizi dutena, dagoeneko ume baten heriotza suposatu duena. Bere herrian euskarazko irakaskuntza ez egotearen ondorioz errepidean bizia galdu zuen umea alegia. Egoera honen aurrean, galdera ezberdinak luzatu nahi dizkiogu Iribas kontseilariari eta errealitate hau mantendu dadin ahaleginak egiten dituztenei: *Prest zaudete datu hauek esku artean izanik, egunero errepidean jartzen diren umei gerta ahal zaienaren erantzule egiteko? Prest zaudete familia hauek guztiak bizi duten egoeraren erantzule izateko? Prest zaudete lege baztertzaille honek sortzen dituen ondorio guztien erantzule egiteko?*

Honengatik guztiagatik, egoera honekin amaitzeko pausuak ematea exijitzen diogu Nafar Gobernuari, euskaraz bizitzeko eskubidea herri eta auzo guztietara zabalduz, eta jendarteari eskatuz, datuak begi bistan, inoiz baino beharrezkoagoa den Hezkuntza Sistema Propioaren alde lanean aritzeko egunez egun.

Beraz, berriro ere aitzakiarik gabe D eredu publikoa herri eta auzo guztietara zabaltzea eskatzen dugu ikasturte berrian ikasle guztiek euskara ezagut dezaten.

**Sortzen-Ikasbatuaz
Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko Elkarte**